

Memoria

Joxean Agirre

Batzuek badakite sanandresak, asentzioak, sanpedroak edo santu guztiak noiz izaten diren. Nik sanferminak bakarrik gogoratzen ditut, eta saninazioak. Badaude Realeko entrenatzaileen izenak hurrenkera zuzenean esateko gai direnak. Hitz egiten ari dira eta «emaztea abuztuaren 3koa da», esaten dute, eta zu zalantzaz beteta uzten zaituzte, eta haren nortasun agiria begiratu behar izaten duzu urtero opariren bat erosteko.

Memoria gauza bitxia da. Batzuek ize-
nez, datez eta zenbakiz betetzen dute. Bes-
teok irudi lausoz, bizipenez eta ametsez.
Hasten zara bidaia baten kontakizuna egi-
ten eta emazteak esaten dizu: «bidaia hori
beste batekin egingo zenuen», lekuak eta
oroitzapenak bat ez datozelako. Portugale-
ra egin genuen bidaia luze batetik Lisboa-
ko San Jorge gazteluan ikusi nuen adineko

gizon baten oroitzapena geratu zait. Za-
hartzean hura bezalakoa izango nintzela
sartu zitzaidan buruan eta arratsalde osoa
eman nuen hari begira eta ez nuen ondo-
an eseri eta galderak egiten hasi arteko
onik izan.

Bavariako egonaldi batetik eguraldi ona
zenean bertako baserritarrak belarra eba-
kitzera traktoreetan nola ateratzen ziren
dut gogoan: 1 Formulan bezala, herioan
ateratzen ziren bakoitza bere etxetik eta
hasten ziren belarra ebakitzen. Konbentzi-
tuta nago zeinek belar fardo gehiago egin
egiten zutela apustu, gauean taberna bere-
an biltzen baitziren guztiak pitxar bana
garagardo edateko eta iruditzen zitzaidan
galtzaileak ordaintzen zituela guztiak.

Erroman hamar egun igaro eta Trasteve-
reko enoteka bateko ardoaren gomuta gel-
ditu zait, eta ezer gutxi gehiago. Demagun

batzuen memoria zientzietakoa dela eta
besteona letretakoa edo poetikoa.

Memoria historikoaz hainbeste hitz egi-
ten dugun honetan Jesus Altuna antropo-
logoak kontatu zidan istorio batekin gogo-
ratu ohi naiz. Niauxko hartzuloaren
barruan harritzar batez itxia milaka urtez
egondako galeria bat aurkitu zuten, eta,
harria kentzean, emakume eta haur baten
oinaztura fosilizatuak ikusi zituzten: au-
rreko horman margoturik zeuden bisonte-
enganaino zihoazen eta sarrerara itzul-
tzen ziren. Badirudi bisita horren ondoren
erori zela sarrera ixten zuen harria. Zien-
tzialariak oinazturak neurtzen ditu eta ba-
daki zer adinekoak ziren emakumea eta
haurra, baina ez daki bisonteen aurrean
zer galdera egin zizkion umeak amari eta
honek zer erantzun zion. Horretarako
daude poetak. •

Kolore biziak

Saioa Iraola

A ltsasukoak bahituta daude bor-
txaz eta 20ak –AEB, Europar Ba-
tasuna, Kanada, Txina, Errusia,
Saudi Arabia eta Indiak parte
hartzen dute, besteak beste, eta Espainia
parte ez den arren, beti parte hartzen du
gonbidatu fin gisa–, berriz, aste honetan,
Hanburgon (Alemania), giltzapean dau-
de, ez atxilo daudelako, jakina, mundua
“konpontzeko” jaki, edari eta luxu arte-
an besteen bizitzak, herritarron egune-
rokoa baldintzatuko dituzten erabakiak
hartzeko baizik. Demokraziaren izenean,
bietan gerra. Munduko estatu botere-
tsuenak batzen dituen G20 taldearen bil-

kuran, besteak beste, mintzagai izango
dituzte politika antiterrorista, migrazio
politikak, ingurumen legediak –Parisko
Hitzarmena kasu, Trumpek, agintaldia-
ren hasieran, AEBek beteko ez zutela ira-
garri zuena–...

Grisa eta tristea bilakatu nahi dute
mundua, enpatia eta elkartasunik gabea.
Baina mundutiarrok ez dugu etsiko, gri-
sa koloreztatzen gabiltza, han eta he-
men, injustizia eraitsi eta demokrazia
birdefinitzeko. Goi bilkura horren ata-
rian, 1.000 zombik Hanburgoko kaleak
hartu dituzte. Elkar gurutzatzen ez diren
begiradak eta gorputz programatuak no-

raezean ibili dira espaloi, bidegurutze
eta plazetan. Hori bai, 21.000 poliziaren
zaintzapean.

Baina ilunak argia berekin duenez,
errefuxiatuoi, langileoi, emakumeoi, bo-
lleroi, etxeko andreoi, indigenoi, transoi,
desjabetuoi, prekariooi, etxegabetuoi,
euskaldunoi, anarkistoi, sozialistoi, oku-
poi... etsipenera kondenatu nahi gaituz-
ten arren, “guk argi dugu”. Kolore gabeko
mundua, mundu tristea da eta, beraz,
tristuraz beteriko mundua, mundu bu-
katua. Horregatik, kolore biziak darama-
tzagu soinean, bai Altsasun eta baita
Hanburgon ere. •